


KONPOSATU ORGANIKOEN FORMULA ENPIRIKOA, MOLEKULARRA ETA ISOMEROAK



a)FORMULA ENPIRIKO MOLEKULARRA ERREPASATZEKO ARIKETAK

1.-Konposatu organiko batek karbono, hidrogeno eta oxigeno soilik du. 250 °C eta 750 mmHg-tan substantzia horren 1,65 gramoren bolumena 629 mL-koa da. Bere analisi kimikoaren datuak hauek dira: C=%63,1 eta H=%8,7. Kalkulatu bere formula molekularra (C₆H₁₀O₂)

2.- Hidrokarburo baten masa molarra 72 g/mol da; eta haren mol batek 60 g karbono ditu. Kalkulatu hidrokarburoaren formula molekularra, jakinik gisa horretako konposatuak soil-soilik karbonoz eta hidrogenoz osatuta daudela. (C₅H₁₂)

b)FORMULA ENPIRIKO MOLEKULARRA ETA ISOMEROAK:ARIKETAK

3.-Konposatu hegazkor baten %54,5 C, % 9,10 H,eta %36,4 O. Jakinda 0,345g konposatuk 120 ml betetzen dituztela, lurrun-egoeran eta 100°C-an, lor itzazu

a) formula enpiriko eta molekularra. b)Iortutako konposatuaren 3 funtzio isomero posibleak. (C₄H₈O₂)

4.-Substantzia organiko baten dentsitatea, gas egoeran, 1,28 g/L-koa da 56°C eta 454 mmHg-tan. Bere konposizio zentesimala hauxe da: C=%62,0 H=%10,4 eta O=%27,6.

a) Kalkulatu formula molekularra. b) Idatzi eta izendatu bi isomero A eta B . (C₃H₆O)

5.-Substantzia organiko batek karbono, hidrogeno eta oxigeno du soilik. Baldintza normaletan lurrunaren dentsitatea 3,30 g/L-koa da. Konposatu honen 0,275 g errekontzetatik sortutako datuak hauek dira: 0,654 g karbono dioxido eta 0,3375 g ur.

a) Kalkulatu formula molekularra
b) Idatzi eta izendatu hiru isomero A, B, C. (C₄H₁₀O)